U R T E - Z A R

Amaitu zaigu 1969'go urtea ere. Gertaera sonatu ta ixillak, mingarri ta pozgarrik. Atzerapen eta aurrerapen. Maitasun eta gorroto. Pake ta guda. Leialtasun eta maltzurkeri. Guzitik izan du.

Gertaera nagusi ta aztoragarri: illargiraño irixtea.

Ta gertaera guzien artean gizakia tartean. Batzutan gañean, bestetan azpian. Aldiz nagusi, aldiz morroi. Batzutan mundua aurreratzen, egiten: bestetan desegiten, ondatzen.

Gertaera oien artean gizakia burrukan, zapalduta, etsita, minduta, gizarteko zurrunbilloetan gal-zorian.

—•—

Aztu egiten zaizkigu zenbait gora-bera. Aztu egiten zaizkigu, bai. Batez ere besteren miñak zaizkigu aztutzen azkar.

Baña urte-mugan gogoratu egin bear, oien aurrean nere bizitza ta jokabideak aztertzeko. Nere buruari galdera bat egiteko: Errurik bai al dut? Zer egin dut gerta ez ditezen? Egoera zital orren atzaparretan erori diranei laguntzeko ezer egin al dut? Gizartea obeagotzen saiatzen al naiz? Giro ustel au jatortzen alegindu al naiz? Ondo bizi-naiaren lo-zorro gozoan jarraitu al dut?

—•—

Bere seme-alaba batzuk espetxean, igesian, erbestean zitula asi zun Euskalerriak bukatu dan urtea. Ta ala bukatu du. Nolako jaiotza alako eriotza. Urte-zar, urte-txar.

«Bereizketa-legeak» jorratu gogorra eman zion Euskalerriari.

Erbesteratuak asko.

Lege orren aitzakian lantokietatik bidalitakoak ez gutxi.

Eunkak etxetik beartuta ertzañetara eramanak.

Etxe-miaketa zorrotzak. Apaiz eta praille-etxeen zoko-miatzeak.

Berri-emalleen ixiltasuna edo alde-aldeko albiste-zabaltzea.

Babes gutxiko auziak... Eriotz-epaiak... bost, amar, ogei ta amar urteko itzala...

Odol-ixurtzeak... giza-erailketak... Mendi, kale, ta elizak odol-izpiztiñez gorrituta.

—•—

Baña Euskalerriak ba-du oraindik arnasa. Bizi da. Negu otzean su-ondoan egotea da txarrena. Otz-beratu ta kuzkurtu egiten da. Otzari gogor egin bear zaio. Lanera atera, ibilli, jostatu, mendira joan...

Saiatu dira tarteka zenbaitzuk.

Lan-oporketak... gose-oporketak... diru-biltzeak...

488 apaiz euskaldunek Españi'ko gotzai-alkarteari zuzendutako eskutitza, emengo berri emanaz. Baiona'ko 70 apaizek emengo egoera salatzen dute ta emengoen burruka ta miñekin alkartzen dira. 485 Euskalerriko kristauek emengo elizaren lokera ta jokabide lotsagarriak salatzen dituzte Sinodo'ko gotzaieri egindako eskutitzean.

Izan dira tarteka itzaldi ausartak.

Izan dira gotzai-agiriak... berandu... motel... bildurti... nastu xamarrak baziran ere. Ikastaloko beren babespean artuko dituztela agindu dute eliz-agintariek. Euskalerri osoko gotzaitegietako apaizez osotua dago euskal-liturji-batzordea. Gotzaien aginduz biltzen eta jarduten dira. Egiñik daukate euskera batuan mezaren itzulpena).

—•—

Izan da Erroma'tik ere Aita Santuaren alako zaunka txiki bat ere. Baña baita guzi orrek goikoei eman zezaieketen miña sendatzeko koipea ta ukendua ere izan da. Besoz-beso ospatu zuten Eliz eta Erriagintariek Gazteiz'ko Katedralaren oneste-sagaratzea.

Apaiz asko, praille asko, kristau asko burrukalariei begira egon dira. Ala egon oi ziran asko leoiak beren ortz eta atzaparretan txikitzen zituzten kristauei begira ere. Jolas ona zan nunbait leoien orru ta kristauen kudduxkak entzutea.

Lo jararitu du erriak. Zer gerta ere ez du ezer jakin nai. Israel'ko erriaren antzera jateko exertzen da, dantzarako jeiki ta emagaldu etara makurtu.

Agur urte-zar, urte-txar. Ta alare joanak, joanak baleudeke, utsa. Naiko naspil'eta txatxukeri uzten diok urte-beriari. Esku-bete lan uzten diok urrengoari.

Agur urte-zar, urte-txar... Baña ez uan errua irea... guk egin augu urte-zar, urte-txar. Barkatu. Lagun eiguk urte-berri, urte-on egiten.

UXOLA'ri oarrez...

GEREÑO arlora.

AGIRIKO ESKUTITZA

«Uxola», euzkeltzale jatorr:

Azaroak 16, ZERUKO ARGIA'k argitaratu digun zure «EREÑO'ri IDAZKI IRIKIA'ri nagokio.

Osorik eta arretaz irakurria dizut. Asper-itzetan ez jardutzeko, labur esango dizut esan-bearreko uste dizutana.

Zure idazlan ortako zatitxo bati bakarrik ekingo diot.

Alatsu zuk: «...ez-jakiñak ez zeratenez, ongi ere dakizute itz ori asmatu zuenak «euskotar» gertatzen zala eta euskaldun izateko gogoa izan zuela. Eta «alperrak» justifikatzeko itz ori asmatu ez zuelako, euskera ikasi, landu ta gauz asko erakutsi zizkigula, berria zitzion mintzaira».

Nik ezin asma dizut ain luze eskeiñi diguzun idazki ortan euskeltzale ospetsu orren izenari ferrotxo bat bederen opa ez izatea. Utsik-utsunenean eta soilik-soillenean ere, bere izena aipatzea.

«Euskera ikasi, landu eta gauz asko erakutsi zizkigunari gure idazkietan bere izena ukatzea ez al deritzaizu naikoa pekatu, naikoa oben, naikoa iraiñ?

Euskerak izan dituan suspertzaillerik bizienetako euskeltzale jator ori, euskeltzaleok ain geure degun Arana Goirritar Sabiñ ixilean estaltzeak ez al dizu zure barne-miñetan iñongo zimikorik sortarazten? Lotsa... zeren lots? Beldur... nondikako beldur?

Arana Goiritar Sabiñ, izen eta abizenez, Uxola adixkide, euskeltzale zintzo ta urdurienetakoa izan degula idazteaz ez dizu naparriak elduko. Ez izan orren kezkarik.

Ez gaitezen ondo jaioak bakarrik izan. On dezakegu ondo aziak izatea ere. Euzkerak izan dituan euskerazale jator eta ospetsuak beren izenez aipatu eta, era batez, merezi duten bestean goraltzeko esker-on eta kemen ere bezagun orok gurekin.

Eta... orratx! Idazkitxo au orrenbestez amaitutzat jo detan une ontan, ezin etsi izan dizut orrako beste itz-zirrinda batzuei oarrik egin gabe ixilik lotu. Kolkoan, lertu gabe, gorde al izateko, nabarmengiak ote diran zaizkit iduri. Gereño'ren itzak ditut arrlora.

Onako ori irakurrtzean: «Txillardegik» esaten dau bere liburu batean, eta arrazoi aundiarekin, «euskotarrak» itz hori madarikatu behar dogula. Itz hori asmatu da euskera ikasi nahi ez daben gizon alperrak justifikatzeko. Ez doguz behar «euskotarra», euskaldúnak bano».

Itxuraz, guzti ori idazterakoan, ez diozu zure eskuari dar-dar aundirik soma ez eta zure esan-gureari indar eta komenik ere uko. Orrela ondo, Gereño! Gizon tinko, berean zut, zuzen eta egiak borobil esaten dituan gizonak begiko eta gogozko ditut nik. Ortan ez degu eztabaidarik. Ori, baiña, ez dizut oraiñ esku-arteko arlo. Besterik degu jardun-aldi.

Zuk, Gereño, ba-dakizu jakin euskera egokiago erabiltzen, itzak jatorago alkarr-josten... euskeraz idazten, alegia.

Gure mintzairak, adixkide, beste mintzaira oron antzo, bere arau bereziak ditu. Euzkerazko itzak erabiltzez bakarrik ez degu euskeraz idazterik. Gitarra eskuratu utsez ez dago eresirik joterik.

Or diozun orrako «Txillardegik esan dau... itz ori asmatu da...» Ori, adixkide, ori ez da euskera. Iñongo «euskaldunek» ez dizkitzu itzok era orrtaz alkarr-josiko, ez dira-ta orrela jostekoak izan ere.

Idazlanak, zerbait ikasi-gogoz, zertxobat-arretaz irakurtzen dituan euzkerazaleak geiagoko begirapena merezi du. Euskerari, «plazara jalgi» dediñean, erantzupide sakonagoa zor diogu.

Esan dezagun esan, bein betiko, alperrikako eta itxuragabeko lotsaitzalak gainduaz, ori ez dala euskera, idazkera orrek ez duala euskeraren iñongo kutsurik, ori euskera lardaxkatu, nastu, ostikopetu eta lotsagarritzea dala. Eta esan dezagun esan, gezurrezko errukeririk gabe, orrelako eta era orrtako itxuragaiztoko idazlanak beti eta garratz astindu ta «madarikatuko» ditugula. Idazlea beti degu gure adixkide izanen, orrelako idazlanak beti madarikaturen.

Nere jardunari ekiterakoan, Uxola'ri itz bi idaztez amaitzea nizun asmo. Nerau konturatu gabe, Gereño, zu ager zera arlora.

Euskeltzale zaituetanez biok, biok euzkeltzale jator, eta, zuek eta ni, irurok euskera-maitale, alkar artuemanik gogozko bazendute, beti izango dezute lagunarterako bion adixkide leial.

IBIRIAGAKO ALEX

IZKUNTZA-IKASTETXEA TA EUSKERA

Gaurko Bilbo'k aurrerapen uundiko Izkuntza-Ikastetxea estraiñatu du. Munduko mailla goenetan antolatua ala ere. Baiña, ai gure zori makurra!... Ikastetxe orretan, ain zuzen ere, izkuntza bat ezta kontuan artu. Izkuntza ori, gure etxeko-etxekoa izan da: EUSKERA.

Ikastetxea sortzekotan zala, asmo ta amesak ugari egin dira, gure izkera zaarra aintzat artu ta beste izkuntzen artean erakutsia izan zedin. Borondate oneko asko tartetu dira ortarako; baiña azkenean, ortarako dirurik etzegoala ta gure EUSKERA atean gelditu da sartzeke.

Au ere ba da ba... Espaiñia barruan, Euskalerritik kanpora Euskal-Irakaskintza antolatua degu; erbeste askotan ere, gure izkuntzak, bere irakas-Alkiak irikiak dauzka; ta Eusalerri barruan, onen motz gelditu gera: auzoko izkuntzak erakutsi ta etxekoa aterpe gabe utzi degu.

Oraintxe zan, ala ere, sasoirik egokiena, gure Euskera aintzat artzeko. Gobernuaren Liburu Zuria ta ministroaren itzak, amaren izkuntzen alde or zeuden giro ona sortzeko. Antziñatea ta gure denbora elkarrekin nola etorri diran jakiteko, onen egokia degu Euskera. Beste denbora zaarretako lokarri guziak galduak baititugu. Ta Euskerak argi ditzakela kontu oiek eta abar, entzun izan diegu jakintsu ezagunei.

Utsune ori nork bete dezake gure artean?... Len bete izan dutenak: gure Diputazioak. Aspaldi eratu zuan Bizkai'ko Aldundiak Azkue zanak bere ardurapean izan zuan, Euskal-Irakaskintza. Gerora Euskal-Diputazioak antolatu zuten Euskaltzaindia. Eziera ta Jakintzako Ministeritzak ere azken aldi onetan, alde guzietako amen-izkuntzak babestu nairik eman dizkigu zenbait aukera.

Deusto'ko Unibersidadean ere Euskal-Alki bat jarri nai izan zan; baiña kontu ori ere txoritara joan zan. Euskaltzaindiaren berrogetamargarren Urteburua ospatzen izan giñanean, Bizkaiko Diputazioko Lendakariak Kondaira, Legedia ta Izkuntza aztertzen.

Gerora ere, oraintsu Diputazioan aitatua izan da onelako zerbait. Beraz. oao pozik ikusiko genduke, Bizkaiko Diputazioa, asmo eder ori babesten, eta bere ardurapean artzen. Gure Euskerak orrenbeste ta geiago ere merezi du.

E. N.

KONTUTAN HARTZEKOA

Belgika'ko erresuman bi herri nagusi daude: frantsesez mintzo diran waloniarrak, eta nederlanderaz (holanderaz) mintzo diran flandretar eido flamenkoak. Gutxi gora-behera, heren bat ari da frantsesez, eta bi heren nederlanderaz. Brusela, denen hiriburua, nederlanderazko barrutian dago: inguru guzi-guzian nederlanderaz mintzo da herria.

Baina Brusela, denen hiriburu izaki hain zuzen, Belgika'ren oztopo-harri bihurtu da. Alde batetik, bi hizkuntzen paretasuna teoria hutsa da Brusela'n: bruseldarrak, nahiz askotan flamenkera ezagutu, frantsesez mintzo dira gaur kalean eskuarki; eta jatorriaz eta deituraz flandretarrago izan, eta nahiaz eta bihotzaz frantsesago agertzen dira. Brusela'ko flandretarretan egiazko bihurketa bat agiri da: bertakoek hautsi, eten, egin nahi dute beren etorkizko etniatik. Orain dala 50 urte, halere, rusela'n nederlandera zan hizkera nagusia, nahiz garai hartan administrazioa osoki frantsesa izan.

Bestetik, Brusela belgikar guzien hiriburu izanik (bai administrazioari dagokionez, bai ekonomiari dagokionez ere), imigrazio haundia gertatu da. Walonia'ko ikatz-miak, jakina danez, gain-behera doaz; eta waloniar askok Brusela aldera jotzen du lan bila eta etxe bila azkenik. Imigrazioak eta administrazioak bide beretik jo dute, eta Brusela frantsestu egin da errotik.

Legeak, ordea, bi herrien paretasuna nahi du Brusela'n. Areago: flandretar abertzaleek Brusela lehengo egoerara eraman nahi dute, jatorrizko eta orain dala gutxi arteko hizkuntza nederlandera baitzan («Brussel vlaams», Brusela flamenkeraz, letreroak gero eta ugariago dira Flandre aldean).

Gobernuak ez daki nondik jo. Belgika federalismora doala gauza nabarmena da; eta bidezkoa ere bai, ez baitago belgikarrik burokrazian baizik: Belgika'n waloniarrak daude, eta flandretarrak daude. Aspaldidanik esana da hau. Belgika'ko hiru partidu nagusiek, halaz ere, ez dute «federalismo» hitz hori entzun ere nahi, are gutxiago esan. P.S.B.koak (sozialistak) dira puntu hortan beharbada itsuenak eta kontrakoenak.

«Hogei-ta-zortzien Batzordea» ezkenetan dago egun hauetan: Brusela'ko arazoa nola konpondu ez dakite, nahiz dagoeneko flandretar abertzaleak «Batzorde»tik aldeginak izan (28-tatik 25-etara pasa da «Volksunie»koak joan ondoren).

Belgika'ko erresuma, askotan bi herriren arteko alkar-aditzearen ikusgarri gisa aurkeztua, krisi larritan dago; eta edozein momentutan ager diteke «impasse» guzizkoan. Flandretarrak eta waloniarrak inoiz baino etsaiago agertzen dira, alkargandik inoiz baino urutiago, Belgika'ko gobernua bera inoiz baino ahulago eta kolokago.

Mila xehetasun aipa litezke. Batzuk farragarri ere irudituko litzaizkioke irakurleari. Bat edo beste aipatua dut dagoeneko kaseta hontan. Bijoaz beste bi nere gaurkoan.

Brusela'ko Irrati-Telebistak (R.T.B.) ba zuen orkesta bat; aurrerakoan bi izango ditu. Aste hauetan, eta hamaika eztabaidaren ondoren, erdibitu egingo dala dirudi: bata waloniarra izango da, bestea flandretarra.

Harrigarriago gerta dakioke irakurleari «Carte d'Identité» deritzan hortaz erabaki dana. Brusela'ko jendea, teoriaz bimintzoduna dan ezkero, bruseldaren paperak bi hizkuntzetan egiten ziran aurten arte: dana aurki zitekean bai frantsesez eta bai nederlanderaz lerro bakoitzean. er gertatu da, ordea? Ofizinetan eta gainerakoetan, paperak ikusi soilaz bederen, ezin zitekeala jakin paperen jabea flamenkoa zan ala «francophone» zan. Hortatik anitz oker gertatu bide da: flamenko askori, frantsesez egin zaizkio galderak; eta frankofono askori, alderantziz, izenaren itxura dala-ta, nederlanderaz hizketan hasi... Euskal Herri'tik hau neurtzerik ez dago; alegia, norainoko afruntuak diran huts horiek. Gaurko Belgika'n hutsegite horiek sutan jartzen dituzte bertakoak: aski da *sarritan (ez da ipuin bat, sinistuta egon!)* frankofono bati flandretar batek kale baten berri nederlanderaz galdetzea, harek erantzun ere ez dizaion, edo-ta, jainaren gainean, bide okerretatik lekutara bidal dezun!

«Carte d'Identité» horiek, beraz, hizkuntza bakar batez egingo dira orain: dala frantsesez, dala nederlanderaz. Paperen jabeak hautatzen du hizkuntza, eta istilurik ez alde hortatik.

Beste alde batzutatik bai, ordea. Bruseldar gehienak frantsesezko paperak eskatzen ari dira. Nola eramango nederlanderara jende hori? Nola joango 'pertsonaren libertatearen' kontra? Frankofonoen ahotan (eta beren buru dan Risopulos jaunaren ahoan) aipatzen dan hitz aldagabea «askatasuna» da. Gauzak zergatik dauden beren hortan berdin zaie waloniarrei; baina oso gogoangarri iruditzen zaizkie flandretarrei. «Errealistek» ontzat ematen dute gaurko egoera, eta «nazi»tzat salatzen dituzte flandretarrak. Hauek, aldiz, «franskillon» deitzen dituzte haiek (xaxi-frantsesak), eta Brusela indarka frantsestu dala ez dute ahaztuzteko asmorik.

«Europa'ko Hiriburu» dalakoan zatiketa guztizkoa da. Bi etnia alkarren ondoan eta anaikiro bizi ditezkeala esateak ez du funtsik: datozela uste hortan daudenak Brusela'ra. Ala batak bestea zapaldu, ala alkargandik berezi. Hau da Kondairak erakusten duena. Hori da Belgika'n eta gure herrian garbi baino garbiago dagoena.

ertaera horren gain nahi dan teoria eraiki diteke.

Baina teoriak ez dira deusik errealidadeari ez-ikusia eginez osatzen diranean.

LARRESORO

ELEIZ BARRUAN PRESO

Bost gizon, berak naita, Eleiz barruan preso... Urrilla'ren ogei ta zazpian Palaiseau'ko Eleiz protestantean sartu dira... Azaroa'ren seian, an jarraitzen dute... Geroko berririk ez det. Ez dira nor nai bost gizon oek... Frantzia'ko tekniku-jakintsu bana banakoak. Saday'ko Centre d'etudes nucleaires'ean jakintsu argienetakoak... Bost gizon jakintsu eleizan preso eta ezertxo jan gabe... Gose oporketa dagite... Ur utsa'rekin.

Gose oporketa... Eleiz barruan... sei jakintsuk...? ZERGATIK OTE?

Centre d'etudes Nucleaires ezta nola naiko lekua. Frantzi'ko gizon burutsuenak teknika uldetik an dagite lan. Jakindurizko lana'ren artean ordea bearrezkoak dituzu beste lan apal eta umillak: Autsak kendu, lantegia txukundu, garbitu eta abar. Lan apal onetan irureun eta berrogei ta amar emakumek zerbduten. "Femme de menages" zeritzaien.

Egun batean. dirua aurreratu bear zalata, iñungo alkar izketa gabe, emakume langille apal oetatik eun lantegitik kanpora jaurtiki dituzte.

"Eun emakumetxo lanik gabe utzi? Lantegitik kanpora txakur baten antzera jaurtiki...? Eurekin aldez aurretik izketatu gabe...? Zuzengabekeri wundia... Injustizi beltza. Emakume oek berriro lanera, edo gu aiekin batera kanpora". Centre d'etudes nucleaires'ko bost jakintsu mintza dira orrela. Eun emakume errukari lantegitik kanpora gelditu dira. Bost jakintsu protestalari ez dijoaz lanera.

Palaiseau'ko Protestanteen eleizan bost jakintsu preso... oporketa bi-

(10'garren orrialdean jarraintzen du)

Zeruko Argia

(Carlos III, 22 - Pamplona)

1.—JABEA:
Naparro-Kantauri ta Aragoiko Kaputxinoen Probintzia.

2.—ZUZENDARIA:
Miren Jone Azurza Aristegieta.

3.—KONTU-ZAITZAILEA:
Agustin Ezeiza Iturriza.

4.—DIRUTZA:
Azaroaren 30-an egindako diru-kontaketan, ZERUKO ARGIA-k 93.559,02 PEZETA ZITUAN.

ARPIDE SARIA: (1970-rako)

Barruan ... ... 215 pezeta
Korreo batasunetako errietan. 265 »
Atzerritako beste errietan ... ... 285 »
Aldez Aurrez galdetu.
Salmentan (Ale bakoitza) ... ... 5 pezeta